



## **EUSKAL HERRIA ESNEA KOOP. ELKARTEAREN BATZAR OROKORRAK ONETSITAKO KUDEAKETA-TXOSTENA ETA MEMORIA**

“(Aurretik beste paragrafo batzuk daude)... Esne-zentralek huskeria bat ordaintzen zigutenez, gure baserrien erdiak itxi egin behar izan genituen, eta hain errotuta zeuden esne-behiak kendu. Esne-zentralen tratu txarra eta joko zikina zirela eta, gure baserriei bizirik eusteko, 2011n gure esnea banatzeko kooperatiba bat sortu genuen Euskal Herrian, geure izen eta geure balio propioak izango zituen:

- Euskara da gure produktuen etiketetan agertzen den hizkuntza bakarra, eta euskara erabiltzen dugu kooperatiban lan egiteko eta komunikatzeko ere.
- Gure kooperatiba autogestioan oinarritzen da erabat: kooperatibista bakoitzak boto bat du. Bi hilabete behin, batzar orokor bat egiten dugu; kooperatibako baserri bakoitzak informazio guztia du, eta erabakiak hartzen ditu bai esne-nominaren itxierari buruz, bai kooperatibaren egoerari buruz eta bai egiten diren aldaketei buruz.
- Euskal Herriko esnea baino ez dugu banatzen, eta Euskal Herrian baino ez: elikadura-burujabetza.
- Esnea baserrietan ekoizten da, ontziratatu egiten da, banatu egiten da, eta bidezko prezio bat kobratzen da (ez dugu prezioa aldatu kooperatiba sortu genuenetik, hau da, duela 6 urtetik). Gastuak deskontatu egiten dira, eta litroko zenbateko berarekin banatzen zaie kooperatibako baserri guztiei.
- Goi-mendietako gure abereak mantenduz, landa-ingurunearekiko jasangarritasunari eusten diogu. Gainera, kooperatibako baserrien mendi-hegaletan dagoen belar guztia behiak elikatzeke eta bazka propioa egiteko erabiltzen da.

- Kooperatiban esnea biltzeko ditugun baliabideak nahiko urriak dira, eta denonak dira, baldintza beretan.
- Kooperatibako baserri guztiek kuota bera uzten dute hilabetean behin, eta zenbateko hori haiei dagokien esne-nominatik deskontatzen zaie gero. Bildutako hilabeteko kuota jarduera amaitzen dutenean itzultzen zaie baserriei.
- Nekazaritzako kooperatiba-ereduari jarraitzen diogu enplegua sortzeko eta mantentzeko. Gaur egun, ehun langile baino gehiago ditugu gure kooperatiban: baserriko profesionalak, garraiolariak, kooperatibaren kudeatzaileak, banatzaileak, osasun-aztertzaileak eta albaitariak, eta instalazioak mantentzeko teknikariak...

Azken hamarkadetan, inbertitzaileak etengabe aritu dira gure herrian eta gure kooperatiban presioa egiten, eta presioa egiten ari dira oraindik ere, gu gutxietsiz eta pentsatuz baserriko edo herriko jendea ez dela konturatzen. Ultrakapitalismo suntsitzailearen alde egiten duten horiek salerosle gisa sartzen dira esnearen eta abeltzaintzaren katean, irabazi errazen bila, milioi askoko diru-laguntzen edo instalazio publikoez gozatzeko abantailen bitartez, eta, horiek kobratu edo baliatu ondoren, instalazio eraitsiak besterik ez dira gelditzen, herritik urrun, eta tokiko enplegua suntsituta eta izugarrizko zorrak langile eta erakunde publikoekin.

Esnearen industrian zein esnearen salerosketan lan egiten duten botere ekonomiko handiko euskal zentroek hemen ekoizten ez diren esne eta esnekiak euskal merkatuan sartuz egiten dute negozioa, baita Euskal Herritik kanpo ere, edozein jatorritako esnea salduz. Errespetatzen dugu haiena, baina gure ekoizpen- eta herri-eredua ez da hori. Guk ahalegina egiten dugu, ekoiraunkortasunaren bitartez, esnea ekoizten duten kooperatibako baserriei eusteko, bertako esnea euskaraz saltzeko, kooperatibako enplegua mantentzeko eta sortzeko, kooperatibisten ekoizpen-baliabideekin autogestio-eredu bat garatzeko. Gainera, gure prezioak ez dira eskaintza eta eskaeraren legearen edo merkatuko beste lege batzuen arabera aldatzen, ekoizpen-kostuen arabera baizik.

Gure ekonomia- eta ekoizpen-eredua independentea da, eta kooperatiban oinarritutakoa; ez dago Euskal Herriko ohiko botere-zentroen mende. Are gehiago, botere-zentro horiei ez zaie gure eredia gustatzen, salbuespenak salbuespen, ez baitute erabat onartzen Euskal Herriko dozena bat baserrik, bakarrik, atzean botere ekonomikorik edo egitatezko botererik izan gabe, nola duten lekua Euskal Herriko denda txiki eta handietan. Izan ere, Euskal Herria Esneak kontsumitzaileen babesa baino ez du; gure esnea erosiz babesten dituzte kontsumitzaileek kooperatibaren ahalegina, balioak eta printzipioak.

2011. eta 2012. urtean, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako hainbat herri bisitatu genituen, eta hango udalekin bildu ginen. Zuzenean agertu zuten gure proiektuarekiko interesa, esnea prozesatzeko eta ontziratzekeo linea beren udalerrietan instalatzeko. Guk aurrez aurre eskertu genien erakutsi ziguten prestasuna eta konfiantza, eta eskerrak eman nahi dizkiegu orain ere.

2011. urtean, bizirauteko beharrak eraginda, gure esnea banatzeko kooperatiba bihurtu ginen, eta orain (2017-2018) behar horrek berak esnea prozesatzen eta ontziratzen duen kooperatiba bihur gaitzake.

Espero duguna da Euskal Herriko finantza-erakundeek, batez ere finantza-sektorean euskal kooperatibismoaren alde egiten duten eta gure lurralde-eredu bera duten horiek, gurekin finantzaketa-elkarlan zintzo eta prestu bati ekiteko prest egotea, esnearen sektoreko beste proiektu batzuekin egin duten moduan.

Era berean, konfiantza dugu Euskal Herriko esnea ontziratzekeo eta eraldatzeko beste proiektu batzuek erakunde publikoengana jo dutenean jaso duten tratu bera jasoko dugula guk ere erakunde publiko horiengandik. Euskal Herria

Esnearen kooperatiba-proiektuak ez du inoiz diru-laguntza publikorik eskatu 2011n sortu zenetik; hau da, ez du inoiz halako laguntzarik izan.

Hori dela eta, HONAKO HAU ADIERAZTEN DA, batetik, MEMORIAren barruan, balantzean agertzen ez diren negozio-proposamenei eta haien finantza-zenbatekoari eta izaerari buruzko Kapitalezko Sozietateen Legearen 260. artikuluko 7.2 eta 22. xedapenetan ezarritako kasuetarako (izan ere, informazio hau beharrezkoa izan daiteke sozietatearen finantza-egoera zehazteko), eta, bestetik, KUDEAKETA-TXOSTENaren barruan, lege bereko 262. artikuluko 2. xedapenean ezarritako kasuetarako:

1) Erakunde honek, 2018rako (inbertsioak 2017han hasiko lirateke), Karrantzan esnea biltzeko dugun zentro apala esnea prozesatzeko eta ontziratzekeko planta apal bihurtu nahi du; izan ere, gertutasuna kontuan hartuta, gure baserri gehienak herri horretan eta Lanestosan daude, nahiz eta noizbehinka Durangaldetik, Mungialdetik, Nafarroatik eta Ipar Euskal Herritik jasotzen dugun esnea.

2) Kooperatibako Kontseilu Errektoreak Finantza eta Aurrekontu Plana egingo du ekitaldi honetan. 2018 ekitaldia amaitu baino lehen bukatuko da, eta, horri esker, gure kooperatibak aukera izango du UHT prozesatua gure esnearen ontziekin eta gure lantegian egiteko behar diren ekoizpen-baliabideak lortzeko.

3) Kooperatiba hau sortu zenetik, euskaraz baino ez ditugu etiketatzen gure produktuak; horrek hainbat eragozpen ekarri dizkigu lege aldetik, baina gure helburua euskarazko komunikazio-politika bat izatea da, eta hizkuntza horretan lan egiten dugu gure lantegian. Gainera, BAI EUSKARARI ziurtagiria dugu. Dinamika horri jarraituz, gure fakturak eta merkataritza-gutun guztiak euskaraz izango dira. Badakigu horrek zailtasunak ekarriko dizkigula, baina, hala ere, geure

gain hartuko ditugu, eta lagundu egingo diegu erabaki horrek eguneroko lana zailtzen dien horiei.

4) Kooperatibako Kontseilu Errektoreak plan bat jarriko du martxan 2018an EUSKAL HERRIA ESNEA S. COOP kooperatibako baserrietan borondatez eta pixkanaka transgenikorik gabeko animalientzako elikadura sartzeko.

5) Kooperatibako Kontseilu Errektoreak gure baserrietako mendi-hegaletako belarrarekin eta bazkarekin elikatzen diren goi-mendietako behien esnearen euskal gazta egin eta merkaturatuko du 2017an, Euskal Herria Esnea markarekin transgenikorik gabekoa ez den elikadura pixkanaka saihesteko. Aurrera begira, beste esneki batzuk egingo dira esne berarekin.

6) Kontseilu Errektoreak 2018an I+Grako aurrekontu-partida bat jarriko du, iraupen luzeko EUSKAL HERRIA ESNEA esne ekologikoa euskal kontsumitzaileen eskura jartzeko, eta, oro har, esneki ekologikoak egiteko... (jarraitu egiten du)..."

Euskal Herria, 2017ko ekaina

Presidentea:

Joxe Agirreburualde